



TXIKITTO!

SANJUANAK ATE JOKA



AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	11-13
IKASLEEKIN	4-5	LEHIAKETA	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
AITXITXA-AMAMEKIN. .	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
SANJUANAK	10		



Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Zein da edari misteriotsuena?
Txan txan txan paaan...



- Joan zaitez lotara.
- Zergatik?
- Lo aurpegia duzulako.
- Eta zuk zaldi aurpegia duzu eta ez dizut inoiz esan baserrira joateko.

Haur batek galdetzen dio haurdun dagoen emakume bati:

- Zer daukazu sabelean hain handia edukitzeko?
- Eta emakumeak oso maitagarri:
- Nire umea daukat.
- Eta horrenbeste maite baduzu, zergatik jan duzu?



- Ama, ama, zergatik deitu zenidan Lore?
- Jaio zinenean lore bat jausi zelako zure burura.
- Ama, ama, zergatik deitu zenidan Elur?
- Jaio zinenean elurra jausi zelako zure burura.
- Ahaa, aha hau uah ahu uha uhu ahua?
- Adreilu, mesedez, errepikatu, ez dizut ezer ulertu-eta.



Munduaren eboluzioa

Azken hiruhilekoan, munduaren eboluzioaren inguruan egin dute lan San Andres eskolako 5. mailako ikasleek. Gai hori ardatza hartuta alderdi asko landu dituzte, eta bertatik bertara kontatu digute egin eta ikasi duten guztia.



BIDEOA



**BEÑAT
MURILLO**
11 urte



Hiruhilekoa hasteko proiektua aukeratu behar genuen. Horretarako, taldeka aurkezpenak egin behar genituen. Hori egin ondoren, aurkezpenak erakutsi eta bozketak egin genituen. Gehien bozkatu zen proiektua munduaren eboluzioa izan zen.

**EÑAUT
IBARZABAL**
11 urte



Hurrengo pausoa, bakoitzak bere koadernoan nahiak eta proposamenak idatzi behar zituen: Zer jakin nahi genuen, zer dakigun eta zein nahi dugun izatea azkeneko xedea. Ondoren, guztia testu batean bildu eta mapa-kontzeptuala egin genuen hiruhilekoan zehar gida bat edukitzeko.



**GARAZI
ZABALA**
10 urte



Hori guztia egin ondoren, munduaren eboluzioa jakin behar genuen eta etapa batzuk landu genituen. Etapa horiek hauek dira: Kanbriarraurrea, Paleozoikoa, Mesozoikoa eta Zenoziokoa. Hona hemen datu batzuk: Kanbriarraurrean lur-azala, atmosfera eta oxigenoa sortu ziren; eta Paleozoikoak 300.000 urte iraun zuen eta lehenengo landareak agertu ziren.

**MALEN
MURILLO**
11 urte



Ondoren, beste testu bat landu genuen. Testu horretan Big Bangaren teoria azaltzen zen. Adibidez, Big Banga orain dela 15.000-20.000 milioi urte sortu zela. Informazio hori oso lagungarria izan zaigu maketa sortzeko eta eskema bat ere egin genuen.

**MAREN
GARATE**
11 urte



Segidan, beste testu bat egin genuen kontinenteen jatorria ezagutzeko. Lehengo, kontinente guztiak batuta zeuden Pangea sortuta, eta gero bi kontinentetan banatu zen: Laurasia eta Gondwana. Gero, sei kontinentetan banatu ziren, eta geroago gehiago mugitzen joan dira orain dagoen modura iritsi arte.

**NIKO
ARROSPIDE**
11 urte



Azken xederako maketa bat egitea pentsatu genuen, baina gizakietan zentratu ginen. Talde bakoitzak hominido bakoitzaren informazioa kubo batean txertatu zuen eta, gainera, kubo bakoitza hominido horren buruaren tamainakoa zen, eskalan. Hominidoen altuera ere eskalan jarri genuen. Adibidez, Homo Sapiensak 1,8 metro inguru neurtzen zuen, eta eskalan egindako tutuan 18 zentimetro eman genion.



AMAÑA

Maiatzak 27-29 bitartean laugarren eta seigarren mailako ikasleak Irrisarri Land-en egon gara. Bertan, askotariko ekintzak egin dituzte: rokodromoko jolasak, tirolinak, disc-golf-a, olinpiadak, irri-jolasak, oka eta jolastokian ibili. Eguraldia lagun, txorroetan aritzeko tartetxo bat ere atera genuen, eguneko beroa gainetik kendu eta lehenengo bainuak hartzeko. Egun ahaztezinak pasa ditugu, benetan! Hurrengo ikasturtean gehiago!



LA SALLE

Zelako hilabete potentea izan dugun! Umeen antzerki jardunaldiak izan ditugu LH eta HHkoentzat. LH3-ko ikasleek irteera bikaina egin zuten Guggenheim museora. LH4koek ukelele kontzertua eskaini zuten familientzat, Coliseoan bertsolaritza saioa ikusteko aukera izan genuen LH5 eta LH6 koekin, eskola hankaz gora ipini dugu proiektuekin, LH2koak Coliseora joan ziren Ipurterreko saria jasotzera, LGTBIQ+ eta Agenda 30 ere ospatu ditugu eta bukatzeko, irteera guztiekin hasi gara: Unbe, Basondo, Deba, San Pedro, Elorrixa, eta Irisarriland. A zelako kurtso bukaera!!

URKIZU

Maiatzean Kulturartekotasun astea ospatu genuen. 13tik 16ra hainbat ekintza prestatu genituen ikasle zein gurasoentzat: Haur Hezkuntzako ikasleek “Itsas (h)ondokoak” antzerkia izan zuten; LHko lehen zikloko ikasleek “Bertoko eta urruneko ipuinak” antzerkia; bigarren ziklokoek Kiko Pugesén musika errezitaldia, eta hirugarren ziklokoek eta eskolako gurasoek Jon Maiarekin solasaldi interesgarri batez gozatzeko aukera izan zuten. Astearekin amaitzeko, maiatzaren 17an, Kulturarteko Eguna ospatu genuen eskolako familiekin elkarlanean.





ALDATZE

Maiatzaren 14an, Aldatze ikastetxeko 5. mailako ikasleak, Coliseo antzokian Bertso jaialdian hartu zuten parte. Urte guztian ikasitakoa bertso elegante batean isladatu zuten. Urduritasunak ia-ia gainezka egin zuen, baina azkenean dena ongi irten zen. Ufffff! Oporrak gainean ditugu! Animo denoi eta hurrengo ikasturtera arte!



ITURBURU

Liburuaren Eguna ospatu genuen Iturburuan. Lehenengo Liburu Trukaketa egin genuen eta etxeko apalean behin irakurri eta kaso gehiagorik egin ez diogun liburu horri, "beste bizitza" bat eman genion eta beste ume batek irakurriko du. Eta behar bada, behin eta berriz berrerabili ahal ditugu liburu horiek. Ondoren, gure liburu "berriarekin" jolastokian elkartu ginen irakurtzeko eta egun garrantzitsu hau ospatzeko.

SAN ANDRES

Maiatzaren 23an Udaleko bilkura aretoan Eibarko ikastetxeetako eko-ordezkariek, alderdi politikoen ordezkariak eta udal teknikariak Pleno Txikia egin zuten. Ikasturtean zehar Agenda2030 ekimenaren inguruan egindako lana bertan azaldu zuten. Aurtengo gaiaren inguruan herriko lau eraikin publikotan azterketa lanak egin ondoren, udal eraikin hauetan energia aurrezteko helburuarekin pegatinak diseinatu dituzte. Ea denon artean lortzen dugun energia-konsumoa gutxitzea!



ARRATEKO ANDRA MARI

LH5ekoak Azitaingo Suhiltzaileen egoitzara joan ziren eta 6. mailakoekin batera Coliseoan bertso-jaialdian ere parte hartu zuten. Ipurterre sari banaketan ere izan ziren. LHko 3,4,5 eta 6. mailakoak Donostiara joan ziren, Acuariuma bisitatu eta arratsaldez Txuri-Urdin izotz pistan ibili ziren. LHko 3. ziklokoek "Heziketa sexuala"-ri buruzko tailerra izan zuten eskolan bertan. Ekainaren 5ean LHko 3. ziklokoak Oñatiko Natur eskolara eta Arrikrutz kobazuloa ezagutzera joan ziren.



Flora Moya eta Marc eta Eric Muñoz:

« Telekomunikazioak izan dira asmakizunik onena »



Flora amama eta Marc eta Eric bilobak Urkizuko eskolan elkartu ditugu, bertan ikasten dihardute-eta bi mutikoek. Elkarrizketa interesgarri honi esker, gauza berri asko ikasi dituzte Marc-ek eta Eric-ek euren amamari buruz.

- **Kaixo amama, zelan zaude?**
- Oso ondo, maitia.
- **Zer iruditzen zaizu elkarrizketa hau egitea?**
- Oso interesgarria da; horrela, gauza gehiago ezagutuko dituzue nire haurtzaroari buruz.
- **Noiz eta non jaio zinen?**
- 1950eko martxoaren 9an, Ciudad Realeko herritxo batean, Puebla del Príncipe izenekoan.
- **Noiz eta zergatik etorri zinen Eibarrera?**
- Gure herrian gurasoek ez zuten lanik eta, beste asko bezala, lan bila etorri ginen Eibarrera. 13 urte nituen.
- **Zer izan zen gehien harritu zintuena?**
- Hiri bat zirudien herri handia zela. Dena iruditzen zitzaidan handia, eraikinak, kaleak...



Flora eskuman ahizpa nagusiaren ondoan.



Graduatua jasotzen, Karmelitetan.

Gure jaioterria txikia da, etxeak ere txikiak eta baxuak dira...

- Zenbat zineten etxean? Eta etxekolanak nola banatzen zenituzten?

- Bost ginen, gurasoak eta hiru ahizpa. Amak egiten zituen etxeko lanak; alabak eskolan geunden eta aita etxetik kanpo lanean.

- Nola gogoratzen duzu eskolako sasoia?

- Oso urte politak izan ziren. Ondo pasatzen genuen eskolan. Ez genituen etxekolan asko eta orduak ematen genituen kalean jolasten.

- Eta zertara jolasten zineten?

- Gauza askotara, eta jostailuak guk egiten genituen, adibidez, trapuzko panpinak, eta tomate-ontziekin takoidun zapatak...

- Zelako ikaslea zinen?

- Nahiko ona. Nota onak ateratzen nituen. Graduatua gabe iritsi nintzen Eibarrera, eta hemen amaitu nituen ikasketak, Karmelitetan, gaueko eskolan.

- Eta gero?

- Berehala hasi nintzen ileapaindegi batean laguntzen, gero lantegi batean... ezkondu arte. Behin ezkondu eta gero, utzi egin nion lan egiteari. Lehen ohikoa zen.

- Zelan konpontzen zineten eskolan Internet gabe?

- Ezagutzen ez duzunaren falta ez duzu igartzen. Irakasleak azalpenak arbelean ematen zituen eta informazioa behar izanez gero, liburuetara jotzen genuen.

- Zer da Eibartik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

- Agian leku batzuk txukunago egon zitezkeen baina orokorrean Eibartik dena gustatzen zait, jendea batez ere. Oso irekia eta eskuzabala da.

- Zelan konpontzen zara teknologia berriekin?

- Nahiko gaizki. Telefonoa justu-justuan erabiltzen dut, Whatsapp eta... Baina ordenagailu edo tabletik ez dut erabiltzen.

-Noiz izan zenuen lehen kotxea?

-Zuen aitita eta biok nobioak ginenean.

- Zein izan da munduko asmakizunik onena?

-Telekomunikazioak, duda barik. Mundua konektatuta egoteko modu zoragarria da. Une oro eta momentuan dakigu munduaren alde batean zein bestean zer gertatzen ari den, eta elkarren berri dugu.

-Zenbat aurreratu dugu genero-berdintasunean?

-Asko. Lehen, esaterako, gizonezkoek ez zuten ezer egiten. Gaur egun, alde horretan, asko aldatu dira gauzak zorionez. Hala ere, bada zer hobetu, eta berdintasuna lortu behar dugu arlo askotan, etxean, lanean...



Festa has dadila!

Heldu da liburu eta koadernoak albo batera laga eta oporrez gozatzeko sasoia. Gainera, Eibarren ezin baino hobeto hasten ditugu atsedenerako egun hauek, San Juan jaia ospatzeko aukera izaten dugulako.

Hona hemen jaietako egitaraua:

Ekainak 22, zapatua

09:30 - 20:30: Jolasen simulazio tailerra (modelismoa, eszenografia eta mahai-jokoak), Odisea elkartearen eskutik, Untzagan.

Ekainak 23, domeka

12:00: Untzagan, kuadrillak elkartu eta Ustekabe fanfarrearekin kalejira Urkizuraino.

13:00etan: Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei eta kalejira Untzagaraino.

13:30: Pregoia eta txupinazoa, udaletxetik.

13:45: Sanjuanetako kartel-lehiaketaren sari-banaketa, udaletxean.

17:00: Kuadrillen jolasak, Untzagan.

17:00 - 20:00: Klarion tailerra: Sanjuanetako munduko kartel haundiena, Lekim Animazioaken eskutik, Untzagan.

17:30 - 20:30: Umeentzako puzgarriak Urkizun.

19:00: 'Dale Ramón', kale antzerkia Trapu zaharra konpainiarekin, Bizikleta plazan.

19:30: Kalejira Irulitxa fanfarrearekin Untzagatik abiatuta.

19:45: Txokolatada umeentzat Bizikleta plazan.

22:00: Danborradaren irteera, Eibarko Cielito Musika Bandaz lagunduta, Untzagan (grada aldetik).

23:15: Nele Dantza - Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia, Untzagan.

23:30: San Juan Sua, ... eta kitto! elkartearen eskutik, Untzagan.

00:00: San Juan Kantua eta jarraian Danborradaren Alardea, Untzagan



Ekainak 24, astelehena

11:00 - 14:30 // 17:00 - 20:00: 'Puzzleak eta buruhausgarriak' jolas-parkea, Puzzle-kaxa taldearen eskutik, Untzaga Plazan.

18:00: V. San Juan City secrets, makro-ginkana kuadrillentzat, Errebalen, Itzamnaren eskutik.

19:00: 'Mute' kale antzerkia Orain bi konpainiarekin, Untzagan.

19:00: Umeen Danborrada, Ustekabe fanfarrearekin, Urkizutik abiatuta.

19:30: Kalejira Latuna Bando fanfarrearekin, Bizikleta Plazatik abiatuta.

20:30: Umeen pregoia, Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta Alardea, Untzagan.

22:00: Erromeria Jainaga eta Narbaizaren eskutik Untzagan.

23:30: Soka Dantza Kezka Dantza Taldea eta Usartza Txistulari bandarekin Untzagan.

00:00etan: Suzko erroberak Global Foc SL Piroteciaren eskutik.

00:15etik 03:00etara: Untzaga plazan, berbena Jamaica Show orkestrarekin.

Ekainak 25, martitzena

11:30-14:30 // 18:00-20:00: 'La petite caravane' kale antzerki familiarra, Adrian Conde antzerki taldearen eskutik, Untzagan.

17:30 - 20:30: Umeentzako puzgarriak Urkizun.

18:15: Bergarako Erraldoi taldea, Elgetako Buruhandien taldea eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira Urkizutik.

19:00: 'Welcome' kale antzerki ikuskizuna Ganso konpainiarekin Bizikleta plazan.


19:30: Euskal Jaialdia, ... eta kitto! Elkarteak antolatuta Untzagan.

19:45: Txokolatada umeentzat Bizikleta Plazan.

23:00: Suzko erroberak Pirotecnica Vulcanoren eskutik.



7 DESBERDINTASUNAK



LABIRINTOA





5 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **UZTAILAK 6** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa KHADIM txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

**Aita oker dago** 6 urtetik aurrera

Askotariko ipuinak biltzen ditu liburu honek. Zortzi dira guztira, baina lehenengoa, liburuari izenburua ematen diona, labur-laburra da eta atariko soilzat har daiteke. Umeak helduen okerreko uste eta jokabideen lekuko dira kontakizun ia guztietan. Kasu askotan, sarrerako ipuinean bezala, aita da oker dagoena.

**Munstroa eta liburuzaina** 8 urtetik aurrera

Hona hemen munstro izugarri normal eta arrunt baten istorioa. Albaceten bizi da, hango negu hotzak asko gustatzen zaizkiolako. Udan berorik egingo ez balu... Antartikan pentsatu ere ez zuen egingo. Oso bero handiko egun batean, giro fresko bila zebilela, bizia aldatu zion leku batera heldu zen.

**Onin eta komiki madarikatua** 10 urtetik aurrera

Azoka japoniarrera egin dugun bisita amesgaizto bilakatu zaigu. Sugandila errugabe batek, saltsa kutsatu batek eta asmakuntza zoro batek giltzapetuta utzi gaituzte komiki baten orrialdetan eta badirudi ezinezkoa dela ihes egitea. Hizketan dakien su bat, katubus bat eta txorimalo jostari bat izango ditugu bidaide... Baina ez dago denbora galtzerik. Arriskuan dago mundu osoa. Zatoz gurekin eta lagundu hondamena eragozten.

**BITXIKERIAK**

Azenarioak ez dira beti laranja izan. Antzina moreak ziren kanpotik, eta zuriak barrutik.



Kilo bat ezti egiteko, erle bat 4 milioi loretatik pasatu behar da.

Jirafek soinuak igortzen dituzte, baina giza entzumenak entzuteko frekuentzia txikiegian.





Bizipizz eta bere lagunen abenturak

Bizipizz bizikleta lantegi batean jaio zen. Egun batean hainbeste pizza jan zuen, pizza itxurako bizikleta bilakatu zela. Oso pizza gozoa zen eta, lantegiko langileek jan egin nahi zuten. Horregatik erabaki zuen alde egitea. Jatetxe abandonatu batean hartu zuen babes. Bat-batean, Bizipizzek txokolate usaina hauteman zuen eta gosetu egin zen. Orduan tarta itxurako izaki bat ikusi zuen eta beldurtu egin zen, baina, pixkanaka-pixkanaka, elkarrengana gerturatu ziren eta lagun egin ziren.

Tartita izena zuen lagun berriak eta txokolatezko tarta handi bat zen. Egun batean, jatetxetik atera ziren biak Eiffel dorreko parkeko zabuetan jolastera eta gauean, bueltan zirela, galdu egin ziren. Bat-batean, zakarrontzitik gominolazko hartz bat atera zen, Pandy izenekoa. Bizipizz eta Tartita hasieran beldurtu egin ziren baina gero bere burua aurkeztu zuen Pandyk eta euren etxea aurkitzen lagunduko ziela esan zien. Pandyk jatetxera bueltatzen lagundu zien eta egun hartatik aurrera, Pandy haiekin bizi izan zen.

Jatetxea pizzeria gisa berrirekitzea erabaki zuten, eta "Pizza Flex" jarri zioten izena. Bizipizz banatzailea zen, Tartita sukaldaria eta Pandy zerbitzaria.

Pizzeria oso arrakastatsua zen eta hiru lagunak diru asko irabazten hasi ziren. Etxe handi bat erosi zuten, hamahiru pisukoa eta igerilekuduna. Gau batean, soinu arraro bat entzun zuten sotoan. Bizipizz zer gertatzen zen ikustera jaitsi zen, etxe zahar hartako soto beldurgarrira.

Lagunek lo jarraitzen zuten. Panpina beldurgarri bat ikusi zuen, laban



batekin, eta korrika hasi zen. Panpina oso azkarra zenez, harrapatu egin zuen eta gurpiletako bat jaten hasi zen. Erasotzen zuen bitartean, lagunei deitzen saiatu zen, baina haiek ez ziren esnatu. Panpinak Bizipizz furgoneta batean sartu zuen eta bere kobazulora eramane zuen. Lagunak esnatu zirenean, konturatu ziren Bizipizz ez zegoela eta, etxe guztian zehar begiratu ondoren, sotoan bere linterna eta gazta aztarnak aurkitu zituzten. Orduan, laguntza eske deitu zioten poliziarri.

Polizia etxera etorri zen eta gertatutakoa kontatu zioten eta Chuckyren aztarnak aurkitu zituzten. Poliziak furgonetaren gurpilen aztarnak jarraitu zituen kobazulo bateraino. Poliki-poliki sartu ziren eta bertan zegoen Chucky, Bizipizzen gurpiletako zati bat jaten. Bizipizzek polizia ikusi zuenean, beraiengana joan zen eta Chucky atxilotu egin zuten, kartzela sekretu batera eramateko. Lagunak berriz ere elkartu egin ziren, Tartitak Bizipizzentzako pizza-gurpil berri bat sukaldatu zion eta pozik bizi izan ziren.

ZU BAI MARGOLARI!

